



ETA HALA EZ BAZAN? IKASGELAN

ERAGILEA

Parean Berdintasun Elkartea eta Patata Tropikala Antzerki Laborategia

ESKOLA KURRIKULUMAREN ARLOAK:

Berdintasuna, balore zibiko eta etikoak, ongi-izatea, tutoretza, aholkularitza.

ZEIN BALIO SUSTATZEN DITU

Generoa, aniztasuna, inklusioa, giza harremanak.

ZEIN IKAS MAILARI EDO ADINARI ZUZENTZEN ZAIO:

DBH 1,2,3,4 eta Lanbide Heziketa

ZENBAT IKASLEK PARTE HAR DEZAKETE EKITALDI BATEN:

Hurbileko jarduera izan nahi du, ikasleekin elkar eraginean aritzea bilatzen duena. Horregatik, saio bakoitzeko gela batek parte hartuko du. Eskola bakoitzaren beharrak desberdinak direnez eta ikusle-parte hartzaileak gela batera mugatu dugunez, egun berean lau saio (lau gela) egiteko aukera ematen diogu ikastetxeari.

JARDUERAREN DESKRIBAPENA:

laz, Gipuzkoako Aldundiko Kultura Sailaren Olatuak diru-laguntzari esker eta Parean Berdintasun Elkartek bultzatuta, #Eta hala ez bazan egitasmoa jarri genuen martxan. Txanogorritxuren ipuin tradizionala oinarri, haur literaturaren inguruan gogoeta egitera gonbidatu nahi izan dugu ikus-entzunezko bitarteko honekin. Irungo Txingudi ikastolako BHIko ikasle, zuzendaritza eta irakasleen, Patata Tropikala antzerki laborategiko aktoreen eta Bira Produzioak kooperatibaren laguntzarekin egin ahal izan dugu egitasmo hau. Estereotipoetatik aske hazteko eskubidea aldarrikatzen dugu antzerki forumean oinarritutako gizarte esperimendu honekin. Ahoz aho kontatzen ditugun ipuin eta istorioek, haur eta nerabeengan duten eragina ikusarazi nahi izan dugu eta aldi berean, haur literaturan matxismoaren normalizazioaren aurka borrokatzeko tresna izan nahi du sarean bolo bolo zabaldu dugun bideo honek; askotan oharkabean igarotzen diren egoerak birpentsatzeko aukera eskainiz. #Eta hala ez bazan? Egitasmoak arrakasta handia lortu du: Youtuben bakarrik 11.500 bisita eskuratu ditu pare bat asteetan. Hala eta guztiz ere, bereziki eskoletan izandako harrera ona izan da guretzat garrantzitsuena. Martxoaren 8aren bueltan Euskal Herriko eskola askotan erabili dute eta hala jakinarazi digute, irakasle askok esker mezuak bidaliz eta bide hau egitera animatuz. #Eta hala ez bazan? bideoa erabat arrakastatsuen ondoren, eta bereziki, halako materialen premia argia ikusita, egitasmo honi jarraipena eman nahi diogu ikasgeletara eramanez. Horregatik, Parean Ekarteak eta Patata Tropikala Antzerki Laborategiak elkarlanean, Kultura Eskolara katalogorako proiektu berri hau ekoiztu dugu: “Eta hala ez bazan? Ikasgelan”. Oraingoan formatua aldatu dugu: ikus-entzunezkoa izan beharrean, zuzenezko antzerkia izango da eta ikasleak parte hartzaile zuzenak izango dira beraien erantzun eta erreakzioak balioan jarriz.

SAIOAREN EGITURA:

Gela bakoitzeko 90 minutuko saioa izango da :

- Hasierako fasea: Txanogorritxu ipuin klasikoa hartuta, hamar minutuko antzezlan bat eskainiko zaie gazteei.
- Garapen-fasea: Dinamizatzailer baten laguntzarekin, gazteei ipuina aztertzer gonbidatuko zaie; gazteen ikuspegi eta azalpenetatik abiatuz genero ikuspegia txertatuz.
- Azken fasea: Ikasleek ipuina eraldatzeko aukera izango dute. Eztabaidaren ondoren atera dituzten ondorioak oinarri hartuz, aktoreek ipuinaren amaiera ezberdinak taulatuko dituzte. Ikusleek proposatzen dituzten esku-hartzeak adina berrinterpretatuz eszenan. Ondoren, proposatutako irtenbide bakoitzaren bideragarritasuna aztertuko da.

JARDUERA GAUZATZEKO BEHAR DIREN BALDINTZAK ETA BALIABIDEAK:

Gelan bertan egin daiteke. Ez dugu beste ezer behar eskolaren aldetik

TXOSTEN PEDAGOGIKOA:

Jabekuntzaren ikuspegitik lan eginez, indarkeria matxistaren kontrako borrokan ekarpena egiten ari garela uste dugu. Ipuin tradizionaletan, eta errealtatean, oharkabean pasatzen zaizkigun indarkeria egoerak detektatu eta identifikatzeko tresna izango da proiektu hau. Neska zein mutilak izango ditugu entzule, ikusle eta parte hartzaile eta haien hausnarketak, protagonista. Antzerki-foruma izanik, gazte eta nerabeen atentzioa lortzeko egokia izango delakoan gaude. Aurkezten ari garen proiektuaren funtsezko helburua da genero berdintasuna. Baina zehazki ondorengo helburuak markatzen ditugu:

- . Sortu nahi dugun bitartekoaren prozesuan inplikaturako parte hartzaileak, genero rolen inguruan hausnartzea. Batik bat, betikotuak ditugun ipuin klasikoetan erreproduzitzen diren rolen inguruan.

- . Sortuko dugun eztabaida gazteengan genero rol hauen inguruan sentsibilizazioa burutzea eta genero-rolak lantzeko tresna bat eskaintzea.

- . Literaturan genero ikuspegia txertatzeko garrantzia helaraztea.

- . Belaunaldi berriei genero estereotipo eta rolen inguruko jarrera kritiko baterako ariketa proposatzea.

TXOSTEN ARTISTIKOA:

“Eta hala ez bazan” proiektu honetan Augusto Boalen antzerkiaren barruan kokatzen den “Antzerki Foroa” teknika erabiliko da. Istorio unibertsal ezagunen bidez sexismo aztertu nahi dugu eta hurren ipuinetan matxismoaren normalizazioari kritika bat egin nahi zaie, hauek eteteko helburuarekin. Lehenik eta behin aipatzekoa da zapalduaren antzerkiak funtsezko bi printzipio dituela. Lehen, ikuslea ekintza dramatiko baten protagonista bihurtzea da, hau da, ekintzaren subjektu, sortzaile eta eraldatzaile; bigarrena, iraganari buruz hausnartzearekin ez konformatzea da, etorkizuna prestatzea baizik. Antzerki mota honek giza dimentsioa du prozesu artistiko osoan zehar; izan ere, bere sorreratik, bere helburua publiko baten aurrean egiten den antzezpenetik haratago doa: aldaketa soziala bilatzen du. Gauzak horrela, Boalen hitzetara goaz: “Zapalduaren Antzerkiaren helburua ez da oreka lasaigarrira iristea, ekintzara daraman desorekara baizik. Dinamizatzea du helburu. Hori ekintza zehatzaren bidez lortzen da eszenan: eraldatzeko ekintza eraldatzailea da! Eszena eraldatuz, eraldatu egiten naiz”. Guzti hau kontuan hartuz eta gure gizartean emakumeak sufritzen dituen zapalkuntzak eta presioa ikusita, hauek aldatzeko asmoarekin Antzerki Foro bat prestatuko da. Bertan, Txanogorritxu ipuin klasikoa oinarri hartuta, emakumeak jasaten dituen zenbait zapalkuntza islatuko diren, hauei irtenbidea bilatzeko helburuarekin

ETA HALA EZ BAZAN EGITASMOAREN BIDEOA:

 # ETA HALA EZ BAZAN?

ERAGILEEN WEB ORRIAK:

[Patata Tropikala](#)

[Parean Elkartea](#)

KOMUNIKABIDEETAN PROIEKTUAK IZAN DUEN OIHARTZUNA:

<https://tbx.eus/mvbKjefine0>

<https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gaur8/20230306/eta-hala-ez-bazan-bideo-bat-haur-literaturan-aurreiritzi-sexistak-desagrtzeko-bideak-zabaltzeko>


<https://angulaberria.info/es/noticia/2023-07-03/hala-ez-bazan-proyecto-crecer-libre-estereotipos>

<https://www.arrosasarea.eus/2023/03/07/eta-hala-ez-bazan/>

<https://erran.eus/mendialdea/1678361690540-eta-hala-ez-bazan-ikus-entzunezkoa-aurre-keztu-du-parean-elkartek>

<https://bidasoa.hitza.eus/2023/03/06/eta-hala-ez-bazan-estereotipoetatik-aske-hazteko-egitasmoa/>

<https://www.diariovasco.com/bidasoa/irun/eta-txanogorritxuk-berak-erabakitako-bidetik-jarraitu-zuen-20230310211242-nt.html>



<https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/bertan/2023/03/12/cambiar-cuentos-eta-hala-ez-6553876.html>

<https://www.antxetamedia.eus/eu/eta-hala-ez-bazan-literatura-berdintasun-baloreen-ali-atu-izango-lukete-belaunaldi-berriek/>

<https://www.naiz.eus/es/info/noticia/20230330/ipuinen-bitartez-mundua-eraiki-eta-des-eraiki-egin-daiteke>

https://irratia.naiz.eus/eu/info_irratia/amp/20230308/ipuinen-bitartez-mundua-erakusten-diegu-hurrei